

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Aldatzea 2017-2019ko dirulaguntzen plan estrategikoa

2017ko apirilaren 20ko osoko bilkuran, 2017-2019ko dirulaguntzen plan estrategikoa onetsi zen.

Eranskina aldatu beharra dago, 2018rako udal aurrekontuan jasotako dirulaguntza nominatiboei doitzeko.

Udalbatzak, 2018ko ekainaren 21ean egindako ohiko bilkuran, indarrean dagoen plana aldatzea erabaki zuen, honela:

Lehenengoa: I. eranskina aldatzea, "kultura sustapena" epigrafeari neurri hauek gehituta:

– Dirulaguntza Lapuebla Rockfest antolatzeko Zuzeneko emakida. Partida: 334.471; 15.000,00 euro.

– Dirulaguntza S. Bartolome erretiratu eta pentsiodunen elkarteari Jarduerak Zuzeneko emakida. Partida: 334.481; 1.000,00 euro.

Bigarrena: S. Bartolome erretiratu eta pentsiodunen elkarterako ekipamenduari dagokion neurria kentzea, eginda baitago.

Hirugarrena: Aldaketa hori ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitara dadin xedatzea.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Lapuebla de Labarca, 2018ko ekainaren 22a

Alkatea

MAIDER MURILLO TREVIÑO